

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### SEGURTASUN SAILA

## 4998

*EBAZPENA, 2019ko urriaren 17koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2019ko urriaren 15eko Ebazpena, zenbait kide oinarrizko eskalako agente kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.*

EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen zuzendari nagusiaren 2016ko apirilaren 12ko Ebazpenaren 15. oinarriarekin bat etorritik (apirilaren 25eko EHAA, 77. zk.), Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia egin zen, eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide (dekretu hura apirilaren 2ko 60/2019 Dekretuaren bidez aldatu zen), honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinaraztea 2019ko urriaren 15ean argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2019ko urriaren 15eko Ebazpena, zenbait kide oinarrizko eskalako agente kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 17a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.